

Eskubide eta betebeharrak gaika: Artutako pertsonen eskubideen bermeak

18. artikulua Artatutako pertsonen eskubideen bermeak.

Euskal osasun-sistemaren eta gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren zerbitzu eta prestazioen plangintza orokorrarekin bat, Euskadiko administrazio soziosanitarioek eta 2. artikuluan jasotako zentro publiko nahiz pribatu eta gainerako erakundeek bermatu beharko dute lege honetako I. tituluan ezarritako eskubideak betetzen direla.

Pertsonen zuzeneko arreta emateko ardura duen erakundeak behar diren bitartekoak izan beharko ditu lege honetan jasotako eskubideak betetzen direla bermatzeko.

19. artikulua Hainbat zerbitzuren koordinazioa eta laguntza-neurriak.

Osasun alorreko administrazio eta zentroek bideratuko dute eta bermatuko dute ahaideen laguntza bizitzaren amaierako prozesuan, eta laguntza hori koordinatuko dute gaixoari kalitatezko laguntza eskaintzeko behar diren neurriekin, bereziki bizitzaren amaierako fasean.

Sistema sanitarioa eta gizarte-zerbitzuena planifikatzeko, arreta soziosanitarioaren alorrean bereziki artatu beharreko kolektibotzat joko da bizitzaren amaiera-prozesuan dauden pertsonena, lege honetan eta Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legean xedatutakoaren arabera.

1. apartatuan jasotako alor soziosanitarioko lankidetzaren eta koordinazioaren Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 46. artikulua dioenaren arabera garatuko da, dela zerbitzu soziosanitarioen kartera baten edo arretaren egokitasuna bermatuko duten beste formula edo baliabide batzuen bitartez, dela gizarte- eta osasun-sistemetako karteretan sartutako prestazioei gehitutako zerbitzu soziosanitarioen bitartez, nahiz eta modu aldibereko, koordinatu eta iraunkorrean aplikatuak izango diren. Alde horretatik, gizarte-zerbitzuek eta zerbitzu sanitarioek, nork bere kabuz edo batera, dispositibo soziosanitario hutsak eratu ahal izango dituzte, bai eta dispositibo edo establezimendu zabalagoetan sartutako unitate berariaz soziosanitarioak ere.

20. artikulua Familiari eta zaintzaileei laguntza ematea.

Euskal osasun-sistemaren eta gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren plangintza orokorraren esparruan, eta zerbitzuen antolamenduak eta dauden baliabideak ahalbidetzen dutenean, beharrezko baliabideak emango dira bizitzaren amaiera-prozesuan dagoen pertsonaren senide

edo hurbilekoek eta hura zaintzen dutenek laguntza espezifikoa jasotzeko, bai gaixoaren etxean bai osasun- edo gizarte-zerbitzuen zentroetan, gaixotasunaren prozesuari aurre egiteko eta bizitzaren amaiera-prozesuan dagoen pertsonari laguntza emateko.

Era berean, behin heriotza gertaturik, osasun-erakundeek eta zentro eta erakunde soziosanitarioek dolurako osoko laguntza emango diete pertsona horiei berei, laguntzaren jarraipena eta baliabide soziosanitarioen jarraipena eta koordinazioa bermatuz, euskal osasun-sistemak eta gizarte-zerbitzuen euskal sistemak ezarritako protokoloekin bat.

Artatutako pertsonak hala eskatuta, ordezkariak edo senide eta hurbilekoek, osasun- eta gizarte-zerbitzuetako zentro eta erakundeek sarbidea ahalbidetuko diete pertsona horiei, haien konbikzio eta sinesmenen arabera, laguntza espirituala eman diezaieketenei, eta, nolana ere, pertsona horiek ekipo sanitarioaren edo soziosanitarioaren praktikak ez oztopatzea begiratuko dute.